

# ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKATZAILEEN ZENTSUA

## ESLEIPEN-HARTZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

### 1. Etxebizitza eskuratzeko baldintzak frogatzeko behar diren agirien zerrenda:

#### a) Ezinbestean aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatzaileen NAN/AIZaren fotokopia.
- 2015. urteko PFEZren aitorten osoaren fotokopia. Eskatzaile bat baino gehiago badira, guztien aitortenak. Eskatzaileak EZKONDURIK BADAUDE, EDO IZATEZKO BIKOTEA badira, bien aitortena aurkeztu behar dute, edozein delarik ere bikotearen araubide ekonomikoa.
- Eskatzaileen **errol datze agiria**, gehienez ere aurkeztu baino hilabete lehenago egina.

#### b) Bestelako agiriak, inguruabar bereziak frogatzeko. Batez ere azken 5 urteetan etxebizitza bat eskualdatu dutenek edo dagoeneko etxebizitza desegoki baten jabeak direnek aurkeztu beharrekoak:

- NASUVINSArekin harremanetan jarri (848 420 600 edo [censopromotores@nasuvinsa.es](mailto:censopromotores@nasuvinsa.es)) kontsulta zehatza egiteko, izan daitezkeen kasuak hainbeste izanda.

### 2. Norberaren inguruabarrak direla-eta aurkeztu beharreko agiriak, behar den baremoa aplikatzeari begira:

#### a) Familia unitatearen osaeragatik puntuak lortu badira:

- Eskatzaileen Familia Liburuaren fotokopia, seme-alaben datuak egiaztatzeko, halakorik badago, edo jaiotza-agirien fotokopiak.
- Familia berrelkartzeari buruzko ebazpena.
- Ezkontzaz kanpoko seme-alabei buruzko neurriak.
- Udalaren bizikidetzatza ziurtagiria.

#### b) Azalera edo familiaren osaera dela-eta desegokia den prezio libreko etxebizitza baten titulartasuna:

- Etxebizitza erosteko eskrituraren fotokopia, azalera erabilgarria zehazten duena.

c) Alokaturaren egotea, alokairuaren sistema publikoaren barnean edo hortik kanpo:

- Alokairu kontratuaren fotokopia.

d) Elkarrekin bizitzea beste familia unitate baten titulartasuneko etxebizitzetan edo alokairuko etxebizitza batean kontratu idatzirik gabe, lagata edo beste norbaitekin batera.

- Eskatzailearen **erroldatze agiria** edo bizikidetzaren ziurtagiria, bertan jasota norekin bizirik den, gehienez ere aurkeztu baino hilabete lehenago egina

e) Familia unitateko kideren batek %65eko edo hortik gorako desgaitasuna izatea.

- Desgaitasunaren ziurtagiriaren fotokopia, gradua adierazita.

f) Aurrezki kontu, gordailu edo antzeko finantza produktu baten titularra izateagatik, bertan 6.000 euro edo gehiago baditu.

- Ziurtagiria, finantza-erakundeak emana, kontua noiz ireki zen edo gaur egun zenbat diru duen dioena.

g) Bananduak edo dibortziatuak, familiaren etxebizitzaren hipoteka zama beren gain badituzte, edo etxebizitza hori gutxienez ere 2 urtez erabiltzerik ez badute.

- Banantzearen, ezkontza deuseztatuaren edo dibortzioaren epaiaren eta erregulazio hitzarmenaren fotokopiak.
- Familiaren etxebizitzaren hipoteka zama beren gain izatearen egiaztagiria (zama horiek beren gain dituztenean bakarrik).

h) Ohiko etxebizitzaren entrega / salmenta hipoteka-zorra ordaintzeko, etxebizitzatik egozteko ebazpen judiziala hipoteka betearazteko edo ohiko etxebizitzaren errentamendua fede onez ez ordaintzeagatik:

- Epai judiziala edo salmentaren eskritura, halakorik bada

i) Nafarroako Zerga Ogasunari azken 5 urteotan eta borondatezko epearen barruan aurkeztutako PFEZaren aitortpenak:

- Ez dira aitortpenak aurkeztu behar.. Departamentuak izanen du adierazi dena benetakoa den egiaztatzeko ardura.

**3. Erreserba mota bakoitzari dagozkion agiriak:**

a) Etxebizitza erreserbatuak %65eko edo hortik gorako desgaitasuna dutenentzat edo mugimendua eragozten dien %40tik gorako desgaitasuna dutenentzat.

- Desgaitasunaren ziurtagiriaren fotokopia, gradua adierazita.

b) Genero-indarkeriako biktimentzako etxebizitzak.

- Genero-indarkeriaren biktima izatearen ziurtagiria, Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiak emana. Ez da urtebete baino zaharragoa izanen.

c) Familia ugariak:

- Familia ugariaren tituluaren fotokopia.

d) Terrorismoaren biktimak:

- Terrorismoaren biktima izatearen ziurtagiria, Gobernuaren Delegazioak edo Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak emana.